


ERREPIDEKO SORGINA

Europako zenbait zonaldetan kontatzen den
kondeiraren binarritutako ipuina

Gau beltzeko ipuina



Bihurgunean...

Lagun talde bat basora joan zen kanpin-dendekin gaua pasatzera.


Kotxean abiadura bizian zihoazela, bihurgune itxi batera heldu eta susto itzela hartu zuten: agure bat iluntasunean agertu zitzaien, kotxearen parean.



Galdutako poltsa

Kotxea azkar gelditu zen. Agurea gidariaren leihora hurbildu eta txanponez betetako poltsa bat galdu zuela esan zien. Ea nonbait ikusi ote zuten galdetu zien.

Gazteek ezetz esan zioten, eta hantxe utzi zuten agurea, adaxken artean bila.



Urrezko txanponak

Basoaren sakoneran zelaitxo bat topatu eta kanpin-dendak ipini zituzten.

Mikel, kotxea gidatu zuen gaztea, erraminta baten bila itzuli zen. Bere eserlekuan urrezko txanponez betetako poltsa aurkitu zuen.

Ez zion inori ezer kontatu. Poltsatxoa bere poltsikoan gorde zuen, eta bere dendara joan zen lotara.




Gauerdi partean...

Ilargi bete-betea zegoela, urrunetik zetorren ahots bat entzun zuen Mikelek:

— Miiikel... itzul ieza dazu nire poltsa, edo ni joango naiz bila... Basoan sartzen ari naiz...

Amets bat besterik ez zela pentsatu zuen. Dendatik atera zen: kilkerrak bakarrik entzuten ziren. Lasaiago, ohera itzuli zen.



Gero eta gertuago

Handik ordubetera, ahots bera entzun zuen, oraingoan gertuago:

**— Miiikel... itzul ieza dazu nire poltsa...
Zelaira hurbiltzen ari naiz...**

Mikel, gero eta urduriago, txanpon-poltsa hartu eta burkoaren azpian ezkutatu zuen.

Handik gutxira, ahotsa berriro entzun zen. Gero eta gertuago...



— Miiikel...

Kanpin-dendara hurbiltzen ari naiz...

HEMEN NAIZ!

EZTABAIDATU

1 Zergatik uste duzu utzi zuela sorginak poltsa gaztearen kotxean?

2 Zer egingo zenuke zuk horrelako egoera batean?

3 Zer uste duzu gertatuko zela gaztetxoak poltsa beretzat gorde izan ez balu?

4 Zein da zure beldur nagusia?

JOLASA: istorioari buelta eman!

Aldatu istorioa barregarri bihurtzeko. Zein elementu alda ditzakegu barrea eragiteko?

Adibidez: txanpon-poltsaren ordeez, agurearen hortzak, galtzontziloak...

Gure aldaketarik barregarriena:

Taldeka, sortu zuen gau beltzeko istorio barregarria!

GAU BELTZA JAIA OSPATU